



GFaren “Katapulta Tour Gipuzkoa” programak deialdi bat egin nahi du 2018an Gipuzkoan egingo diren musikako eta arte eszenikoetako formatu txikiko emanaldietan parte hartuko duten artistak aukeratzeko.

Deialdiak hiru helburu nagusi ditu:

- Gipuzkoako artisten garapen profesionala sustatzea
- Lurraldeko kultura dinamizatzea
- Kultura-programazio egonkorra duten guneen ikusgaitasuna bultzatzea

Hartzaileak:

Deialdia suspertzen ari diren eta beren ibilbidea musikaren eta arte eszenikoaren esparruetan garatu nahi duten artista profesional edo erdi-profesionalentzat da

Estiloa:

Pop, Rock, Folk, Elektronikoa, Hip-Hop eta antzeko musika estiloetako proposamenak onartuko dira, eta baita formatu txikiko arte eszenikoetako proposamenak ere; esate baterako, mikro-antzerkia, bakarriketak, performanceak eta magia.

Aurkezten diren proposamenek artisten beraien originalak izan behar dute, gehienbat, edo haientzat sortuak.

Proposamenak esparru horietako teknikariek eta profesionalak osatutako epaimahai batek aukeratzeko ditu.

Hautatutako proiektuei honako hauek eskainiko zaizkie:

- Hiru emanaldi Gipuzkoako gune desberdinetan
- 400 euro emanaldi bakoitzeko
- Artista edo proiektua sustatzeko bideo baten grabazioa

Bateragarritasun artistikoaren eta estilistikoaren arabera, aukeratutako hiru proiekturi beste emanaldi bat eskainiko zaie Gipuzkoako Surf Federazioak antolatzen duen “Federarte” Jaialdiaren barruan.

Hautaketarako irizpideak:

Aurkezten diren proposamenen artetik 6 proiektu aukeratzeko dira, honako irizpide hauek kontuan hartuta:

- Lehentasuna izango dute Gipuzkoan erroldatutako artistek eta 30 urtetik beherako adina dutenek.
- Proiektuaren kalitateaz gain, artisten ibilbidea eta etorkizuna ere baloratuko da.
- Hizkuntzari dagokionez, oreka izatea nahi da, eta baita parte-hartzaileen generoari dagokionez ere.

Proposamenak 2018ko urtarrilaren 8tik 22ra bitartean aurkeztu behar dira [ondoko web-orrian](#)

